



MANU  
ROBLES-ARANGIZ  
INSTITUTUA

# prestazio sozialen gida

**ELA**  
EUSKAL SINDIKATUA

# prestazio sozialen gida

## ELAko militanteentzat

### **Azterketa Bulegoa 2015.ko maiatza**

Testu honen helburua prestakuntza eta informazioa eskaintzea da. Legez baliagarri diren testu bakarrak dagokien erakundeetako agerkari ofizialetakoak dira. ELA saiatzen da testuak eguneratuta izaten, zehatz jasotzen eta benetakoak izan daitezen, baina ohartarazi behar du hauek ez direla testu ofizialak; beraz, zehaztasun ezagatik edo akatsak medio gerta daitezkeen oker edo kalteen ardurarik ez du bere gain hartzen.

Halaber, espero dugu gidaliburu hau irakurri edo erabiltzen duenak kontutan izan dezala duela hainbat urtetik hona legedia soziala etengabeko erreforma jasaten ari dela; beraz, gisa honetako edozein material zaharkituta geratzen da epe oso laburrean.

**ELA**  
EUSKAL SINDIKATUA



## SARRERA

Gizarte-prestazioen sistema egoki bat kohesio soziala izateko funtsezko osagaia da. Prestazio sistema honek izan beharko luke gero eta handiagoak diren gizarteko sektorerik ahulenekiko konpromiso kolektiboaren oinarrietako bat. Errealitatea da gaur inoiz baino areago behar direla gizarte prestazioak biztanleriaren benetako eta premiazko beharrianak asetzeko. Gero eta jende gehiago, oso kolektibo desberdinetakoa, laguntza hauen beharrean geratzen da bizi ahal izateko.

Baina aldarrikapen hau ez da berria. 80etako hamarkada bukaeran Eusko Jaurlaritzak Pobreziaren kontrako plan orokorrari ekin zionetik, zeina EAEn gaur dagoen gizarte-prestazioen sorburua izan zen, ELAk, beste eragile batzuk bezala, plan hartan ezarritako estaldura hedatu eta hobetu beharra zegoela adierazi zuen. 90etako hamarkada amaieran hainbat erakunde eta kolektibok gizarte eskubideen kartari buruzko herritar legegintza ekimena plazaratu zuten. Honen bitartez Eusko Legebiltzarrari eta Nafarroako Parlamentuari galdegiten zitzaien asteko lanaldia 35 ordura jaisteko (arloan publikoan, eremu pribaturako ez baitago eskumenik) eta oinarrizko errenta ezartzeko. HEHan 100.000tik gora sinadura bildu zen ekimen honen alde.

Borroka haren ondorioz, esaterako, 1998ko greba orokorraren aldarrikapen nagusiak lanaldia 35 ordura murriztea eta oinarrizko errenta izan ziren. Egungo gizarte-prestazioen eredia oso mugatua izanagatik ere, aldarrikapen eta mobilizazio dinamika haren fruitu da.

Egoerak okerrera egin du; izan ere, sistema aski urria zen, baina gainera ez da hobetzeko ahaleginik egin, guztiz kontrara baizik. Hartutako erabaki guztiekin sistema apurka eraitsi dute.

Hala da. Prestazioak azken urteetan murriztu egin dituzte. Eusko Jaurlaritzan izan diren alderdiek hala erabaki dute. Urkullu zein Lopezen gobernuek gastuaren kontrola lehenetsi dute eskubide sozialak sustatu ordez. Aurrekontuen murrizketekin prestazioen zenbatekoa gutxitu da (Patxi Lopezen gobernuak prestazio ekonomiko guztiak aurrekontuetako xedapen baten bidez %7 moztu zituen, eta portzentaje hau urtero finkatu da. Urkulluren gobernuak ere aurrekontuetan murrizketa berbera aplikatzen du urtero), eta prestazioak jaso ahal izateko baldintzak zorrotz egin dira, gero eta kolektibo gehiago estaldurarik gabe geratu delarik. Murrizketa hauek eta ezarri izan diren beste doitzeko politika guztiek langabeziaren, desberdintasun sozialaren eta babesgabeziaren gorakada handia eragin dute.

Nafarroan ere gizarte-prestazioak agindu dutenen erabakiz murriztu dira. Hala ikusi zen 2012ko urtarrilean UPNk eta PSNk osatutako Nafarroako Gobernuak (Yolanda Barcina gobernuburu eta Elena Torres Gizarte-Politikako sailburua zirela) Oinarrizko Errentaren aldaketa sustatu zuenean, berez oso eskasa zen prestazioa murriztu eta jaso ahal izateko aukera eragozte aldera.

Gizarteratzeko Errenta izenekoa sortu zen horrela; zenbatekoa murriztu, jasotzeko aukera eragotzi eta prestazioaren iraunaldia mugatuta. Prestazio honek ez du konpontzen Nafarroako egoera sozial larria. Izan ere, murrizketa hau krisia bete-betean zela erabaki baitzen, langabezia eta pobrezia inoiz baino areago gehitzen ari zirenean.

Azken urteetan era guztietako mozketak pairatu ditugu, erreforma laboralaren moduko doikuntza politikak barne: honek kaleratzea erraztu eta merkatu zuen, langabezia prestazioa murriztu, negoziazio kolektiboaren sistema erreformatu eta hitzarmen kolektiboan ultraaktibitatea eta eragina deuseztatu zuen, langileklasearen zati handi bat defentsarik gabe utzirik. Pentsioen erreformak, berriz, haiek jasotzeko aukera eragotzi eta zenbatekoak jaisten ditu. Horrek guztiak erosteko ahalmena galtzea eragin du, areago egungo egoera ekonomikoan. Datuek adierazten dute jendea desberdintasunaren eta pobrezia-aren aurrean guztiz babesik gabe dela. Herritarrak egoeraren eta hartutako erabaki politikoaren ondorioak pairatzen ari dira. Halere, horren arduraren prestazio sozialak jasotzen dituztenei egotzi, eta pertsona hauek kriminalizatu egiten dituzte.

2015eko martxoaren amaieran Lanbideren eta Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren zerrendetan 219.832 langabe zeuden zenbatuta. Horietatik %57,9ek ez zuen langabezia prestazio bat ere jasotzen, ez kotizaziopekoa, ez laguntzazkoa, ere.

Azken urteetan langabezia asko hazi da (2014an 2008an baino 106.800 langabe gehiago zeuden), eta langabezia prestazioen estaldurari sekulako mozketak egin zaio (2008an estaldurarik gabe lanik gabeko biztanleriaren %34,7 zegoen, eta egun, %57,9, hots, babesa galdu dutenen kopurua 20 puntutik gora gehitu da).

2014 urtearen bukaeran EAEn Diru-Sarrerak Bermatzeko Errenta (DBE) 65.687 bizikidetzak jasotzen zuten. Azken aldion hura jasotzen duten familiak asko gehitu dira (2009 amaieran baino %36,6 gehiago dira), bizitzen ari garen langabezia, prekaritate eta txirotasunaren hazkundearen ondorioz.

Eusko Jaurlaritzaren 2015erako aurrekontuan 482 milioi euro jarri ditu DBE, Gizarte-Larrialdietako Laguntza (GLL) eta Etxebizitzako Gastuetarako Prestazio Osagarria (EPO) ordaintzeko. Gobernu berak, soilik Gipuzkoako AHTren tarte egiteko 350 milioi euro aurreikusi ditu urte bererako. GLLren aurrekontua 2014ko 20,5 milioitik

aurtengo 22 milioira gehitu da, egungo kopuruarekin zazpi hilabeterako nekez iristen den arren. Beraz, milaka pertsona edo familia estaldurarik gabe geratzen da.

Eusko Jaurlaritzak egin duen 2014ko Behar Sozialei buruzko Inkestak adierazten du azken urteetan EAEn pobrezia hazkunde itzela izan duela. Esaterako, inkestak "benetako ongizate gabezia" deitzen diona 2008tik hona %41 gehitu da, 2014an 248.000 pertsona izateraino, alegia biztanleriaren %11,5.

Inkesta berak adierazten du pobre izateko arriskuan dagoen eta prestaziorik jasotzeko aukerarik ez duen biztanleriaren zatia handiagoa dela. Beraz, gero eta jende behartsu gehiago dago gizarte-babeseke sistematik baztertuta.

Nafarroan oinarrizko errenta 11.700 familiak jasotzen dute, guztira 28.100 pertsonak. Nafarroan ere gorakada gertatu da langabezia, prekarietatea eta pobrezia haztearekin batera, 2013an 9.472 familiak eta guztira 22.278 pertsonak jaso baitzuten Gizarteratzeko Errenta (GE). Datuok Nafarroako Gobernuak berak eman ditu, baina sarri jarri izan dira zalantzan. Esaterako, I-E talde parlamentarioak aipatu du 2014 urtean errenta hau batez beste 4.674 familiak jaso dutela, eta ez Gizarte Politiken sailburuak esandako 9.472k.

Haatik, Nafarroan pobrezia inguruan egin diren ikerketek egoera oso larria islatzen dute. Adibidez, Caritasen Foessa txostenaren arabera Nafarroan 95.000 pertsona dago pobrezia arriskuan (biztanleriaren %14,8), eta ia 20.000 lagun (biztanleen %3,1) pobrezia larrian bizi da.

Txosten honek berak nabarmentzen du Nafarroako etxeen %9,2ak Gizarteratzeko Errentaz azpiko diru-sarrerak dituela, GEa aldi baterako jasotzen delako eta familia batzuk ez dutelako urte guztian zehar jasotzen.

Horrenbestez, gizarte babesa hobetu beharra dago. Alabaina, ikusi dugunez politikak ez dira horretara bideratzen. Kezka nagusia murriztea edo gastuari eustea da, baita gizarteko kolektiborik ahulenen babesean ere, eta hau onartezina da.

EAEn, enplegu-politika aktiboen transferentzia egin zenean, orduan (Patxi Lopezen eta Gemma Zabaletaren Jaurlaritzarekin), Diru-Sarrerak Bermatzeko Errentaren kudeaketa oinarrizko gizarte-zerbitzuei kendu eta Lanbideren esku jarri zuen. Erabaki hau gogor kritikatu zuen orduan ELAK. Erabaki horren oinarrian asmo jakin bat zegoen, prestazioa jasotzen duten pertsonak ustezko iruzurgile gisa hartzea. Iruzurrari jazarri nahia argudiatuta eskubideak murriztu dituzte.

Urtean behin edo birritan Lanbideak kasuistikaren arabera DBE kudeatzeko irizpide berriak ezarri ohi ditu, legea interpretatzeko irizpide guztiz subjektiboak, prestazioa jasotzeko eskubidea mugatzen dutenak, jasotzeko aukera zailduaz eta prestazioa eteteko kasu oso eztabaidagarriak ezarriaz. Irizpide murriztaileok sarri bat ere oinarririk gabeak dira, Arartekoak berak ere aitortu izan duenez.

Benetako arrazoia ekonomikoa bada ere, murrizketak "iruzurraren kontrola" eta antzeko izenen pean mozorrotzen dira, benetako eztabaida desitxuraturaz eta prestazioak jasotzen dituzten pertsonak kriminalizatzeko eta hauen izena zikintzeko kanpainak medio, hala botere politikotik nola komunikabide nagusietatik, batzutan kutsu xenofoboa ere dutelarik.

Horrek eragiten du erakunde sozialek eta sindikatuek behin eta berriz salatu izan dituzten gai benetan garrantzitsuak ez direla aztertzen. Esaterako murrizketak edota Lanbidek egungo egoerari aurre egiteko duen funtzionamendu okerra edota giza-baliabide eskasia. Adibide ugarik berresten dute argudio hau: bulegoetan izaten diren ilarak, dosierak tramitzatzeko itxaronaldi luzeak, prestazioa justifikaziorik gabe eteteko erabakiak...

Zerbitzua hobetzeko langile gehiago jarri ordez Euskal Enplegu Zerbitzuaren zuzendaritzak beste politika bat erabaki du: Lanbideko pertsonal hutsuneak -erretiroak, oporraldiak, bajak medio gertatzen direnak- ez osatzea. Honi erantsi behar zaio lan-baldintzak okertu eta prekarizatu egin dituela (soldata jaitsierak, lanaldi luzeagoa, kontratazio ezegonkorra eta iruzurrezkoa...). Honela Lanbidek eskaintzen duen zerbitzu publikoaren kalitateak nabarmen egin du okerrera.

Hau guztia, elkarrizketa sozialaren aterpean. EAEn eratu eta adierazpen bat besterik ez du egin, egungo DBE eta gizarteratze eredu berresteko. Ez da inolako balorazio edo irakurketarik egiten biztanleriaren benetako beharrezanei eta hauen estaldurari buruz, Lanbideren egoeraz...

Nafarroan lehenik nabarmendu behar da gizarte-laguntzako eskumen eskusiboa Nafarroako Gobernuari dagokiola, 1982tik hona hala jaso baitu Foruaren Hobekuntzak.

Honek esan nahi du Nafarroan dugun gizarte-prestazioen sistema bertan taxutu dela. Hots, agindu izan dutenen eta agintean daudenen borondate politikoaren arabera da.

Zein da, bada, borondate politiko hori? Errealitatea azaltzeko aski da esatea Nafarroan estatistika eta datu nahikorik ez dagoela. Edo ez direla publiko egiten, bederen.

Horrenbestez, Gobernuak beharizan sozialen argazkia ezagutzerik ere ez du nahi. Bestela esan liteke ere: errealitate hori ezkutatu nahi du. Lehentasun kontua da, eta agerikoa da ez dela UPNren, ez (agintean zegoenean) PSNren lehentasuna izan bizimodu duina bermatzeko gizarte-prestazio sistema bat eraikitzea.

Honen adibide da Oinarrizko Errentan 2012 hasieran erabaki zen murrizketa; helburua gastua gutxitzea zen, eta Gizarteratzeko Errentara pasa zen. Honetarako prestazioaren zenbatekoa jaitsi zuten, bera jasotzeko eskakizunak zorrotzu (batik

bat biztanleria migrantearentzat) eta errentaren iraunaldia ere mugatu, besteak beste.

Beraz, argi dago Nafarroako Gobernuaren eta bera babestu dutenen interes bakarra gizarte-prestazioen, eta bide batez, babes sozialaren gastua murriztea zela.



# SUMARIO

## **EDUKIAK**

---

1.	LANGABEZI PRESTAZIOAK .....	13
2.	EAE-KO GIZARTE-PRESTAZIO PUBLIKOAK .....	25
3.	GIZARTE-PRESTAZIO PUBLIKOAK NAFARROAN .....	33



# 1

## LANGABEZI PRESTAZIOAK

- 14 **1. KOTIZAZIOPEKO PRESTAZIOA ETA  
ORDAINKETA BAKARRA**
- 16 **2. LANGABEZIA-SUBSIDIOAK**
- 17 2.1. Kotizaziopeko prestazioa agortzeagatik
- 18 2.2. Lana galtzeagatik
- 18 2.3. 55 urtetik gorakoentzat
- 20 **3. LANERATZEKO ERRENTA AKTIBOA (LEA)**
- 22 **4. ENPLEGURAKO AKTIBATZEKO  
PROGRAMA**

## 1. KOTIZAZIOPEKO PRESTAZIOA ETA ORDAINKETA BAKARRA

### Azalpena

Prestazio hau hilerokoa da, eta Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoak (SEPE) kudeatu eta ordaintzen du; enplegua nork bere borondatez galdu ez duenean jasotzen da, lan egindako aldietan egindako kotizazioen arabera. Gizarte Segurantzaren kotizazio hauek jasotzen ditu babesak: erretiroa, aldi baterako ezintasuna, baliaezintasuna, heriotza eta biziraupena, familiaren babesa eta osasun-laguntza. Gainera, Enplegu Publikoko Zerbitzuak kudeatutako prestakuntza eta laneratze ekintzekin osatzen da.

### Eskakizunak

- Legezko langabezia-egoeraren aurreko 6 urteetan, gutxienez, 360 egun lan eginda eta langabeziarako kotizatuta izatea.
- Erretiroa hartzeko adin arrunta beteta ez izatea.
- Norbere konturako jarduerarik edo besteren konturako lanaldi osoko lanik ez egitea, enplegua sustatzeko programa batek ezarritako bateragarritasuna ez bada salbu.
- Lanarekin bateragarria ez den Gizarte Segurantzaren pentsio bat ez kobratzea.
- Prestazioa jasotzen duen aldi osoan zehar enplegu eskatzaile moduan izena ematea, izen-emate hori mantentzea eta jarduera konpromisoa sinatzea.

### Zer da kapitalizazio edo ordainketa bakarra?

Norbere konturako langile gisa lan-jarduera bati ekiteko, edo martxan dauden edo eratu berri diren kooperatibetan edo lan- edo merkataritza-sozietateetan bazkide langile edo lan-bazkide gisa sartzea sustatzeko dagoen autoenplegurako ekimenen martxan jartzea erraztea helburu duen enplegu sustapenerako neurria.

### Zein baldintza bete behar da?

- Kontribuzio mailako langabeziagatiko prestaziorik ez jasotzea lan-harremana behin-betiko eteteagatik.
- Prestazioa gutxienez hiru hilabetez jasotzeko izatea.
- Eskariaren dataren aurretiko 4 urteetan ordain bakarreko onarpenik jaso ez izana.
- Garatuko duzun jarduera profesionala hauetako bat izatea:
  - Autonomo gisako jarduera.
  - Kooperatiba edo lan- edo merkataritza-sozietate bat sortzea edo horietako batera sartzea.
- Eskubidea emateko ebazpenetik gehienez hilabete bateko epean jarduerari ekitea eta, betiere, eskariaren dataren ondoren.

## Langabezi pretazioaren iraupena

Azken 6 urteetan egindako kotizazioen arabera kalkulatzen da, aurreko prestazio baterako ez badira kontuan hartu, eskala honen arabera:

Kotizatutako egunak	Prestazio-egunak
360-539	120
540-719	180
720-899	240
900-1.079	300
1.080-1.259	360
1.260-1.439	420
1.440-1.619	480
1.620-1.799	540
1.800-1.979	600
1.980-2.159	660
2.160	720

Lanaldi partzialean lan egin izanez gero, egun bakoitza kotizatutako egun bete adina zenbatuko da, edozein dela ere lanaldia.

## Prestazioaren zenbatekoa

Eguneko zenbatekoa oinarri arautzailearen %70 da, kotizatutako azken 180 egunen kontingentzia profesionalen oinarrien arabera kalkulatuta, aparteko orduak alde batera utzita eskubidea duzun lehen 6 hiletan, eta %50 aldi horretatik aurrera.

2015 urterako prestazioaren gutxieneko eta gehieneko zenbatekoa, ardurapeko seme-alaben arabera:

	<u>Hileko gutxieneko zenbatekoa</u>	<u>Hileko gehieneko zenbat.</u>
Seme-alabarik gabe	497,01 euro	1.087,20 euro
		<i>ume batekin</i> 1.242,52 euro
Seme-alabekin	664,75 euro	
		<i>2 ume edo gehiago</i> 1.397,84 euro

Ardurapeko seme-alabatzat hartuko dira 26 urtetik beherako adingabeak edo ezgaituak diren 26 urtetik gorakoak edo hartutako adingabeak, zurekin bizi badira eta hilean 648,60 euro baino handiagoko errentarik ez badute.

Zure prestazioaren zenbateko gordinari bi kenketa hauek aplikatuko zaizkio:

- Gizarte Segurantzaren kotizazioa.
- PFEZren konturako atxikipena, dagokionean.

**Prestazioaren ordainketa**

Eskatzaileak adierazitako finantza-erakundearen kontuan sartuko da dirua, eskatzailea haren titular izanda, SEPEk ordainketa dirutan egitea baimentzen duen kasuetan izan ezik.

**Eskaera non eta noiz aurkeztu**

<https://sede.sepe.gob.es> web-orriaren bidez, prestazioen bulegoan (SEPEren egoitza elektronikoan ordua hartuz edo 901 01 02 10 telefonora deituz), erregistro publikoko edozein bulegotan edo administrazio-postaren bidez bidaliz.

Lan egindako azken egunetik hurrengo hamabost egun baliodunetara. Enpresak lana utzi aurretik hartu ez dituzun oporrak ordaindu badizkizu, oporren baliokidea den aldi hori bukatu eta hurrengo 15 egun balioduneko epean aurkeztu beharko duzu.

**2. LANGABEZIA-SUBSIDIOAK****Subsidio motak**

- Kotizaziopeko prestazioa agortzeagatik.
- Lana galtzeagatik.
- 55 urtetik gorakoentzat.
- Beste laguntza batzuk.

**Zer baldintza dituzte guztiak?**

- Kontribuzio mailako langabeziagatiko prestaziorako eskubiderik ez izatea.
- Prestazioa jasotzen duen aldi osoan zehar enplegu eskatzaile moduan izena emanda egotea, izen-emate hori mantentzea eta jarduera konpromisoa sinatzea.
- Hilean, gehienez, 486,45 euroko sarrerak izatea.

Laguntza jasotzen duzun bitartean baldintza guztiak bete behar dituzu.

**Zenbatekoa**

Hileko 426 euro.

Lanaldi partzialeko lan bat galtzeagatiko langabeziaren kasuan, zenbateko hori, lan egindako orduen arabera jasoko da.

**Eskaria non egin behar da?**

<https://sede.sepe.gob.es> web-orriaren bidez, prestazioen bulegoan (SEPEren egoitza elektronikoan ordua hartuz edo 901 01 02 10 telefonora deituz), erregistro publikoko edozein bulegotan edo administrazio-postaren bidez bidaliz.

**2.1. Kotizaziopeko prestazioa agortzeagatik****Bete beharreko beste eskakizun batzuk**

- Kotizaziopeko prestazioen bat agortuta izatea.
- Hilabete eramatea enplegu-eskatzaille moduan izena emanda, prestazio hori amaitzen denetik.
- Familia-erantzukizunak izatea, 45 urte edo gehiago badituzu salbu, kasu horretan ez baita beharko.
- Nekazaritzako aldi baterako langileentzat kontribuzio-laguntza agortu duten langileek ez dute sorospen hau jasotzeko eskubiderik.

**Eskatzeko epea**

Kotizaziopeko prestazioa agortzen denetik hileko itzarotea amaitu eta hurrengo 15 egun baliodunetan.

**Prestazioaren iraupena**

6 hilabete, sei hileko aldietan luza daitezkeenak, agortu duzun kotizaziopeko mailako langabezia-prestazioaren iraupenaren eta zure adinaren arabera, epe barruan eskatu baduzu.

Adina	Prestazio kontributiboa agortua	Subsidioaren iraupena	
		Erantzunkizun familiarrik gabe	Erantzunkizun familiarrekin
45 urtetik beherakoak	4 hilabete		18 hilabete
	6 hilabete edo gehiago		24 hilabete
45 urtetik gorakoak	4 hilabete	6 hilabete	24 hilabete
	6 hilabete edo gehiago		30 hilabete

\* Aldizkako langile finioen kasuan iraupena eskaera egin aurreko urtean kotizatutako hilabeteen arabera.



## 2.2. Lana galtzeagatik

---

### Bete beharreko beste baldintza batzuk

- Enplegu bat borondatez kanpo galtzea.
- Familia-erantzukizunekin, 90 eta 179 egun artean langabeziagatik kotizatu izana.
- Familia-erantzukizunik gabe, 180 eta 359 egun artean langabeziagatik kotizatu izana.

### Eskatzeko epea

Lan egindako azken egunetik edo ordaindutako eta hartu gabeko oporren baliokidea den aldia amaitzen denetik hurrengo 15 egun baliodunetan.

### Laguntza kobra daitekeen aldia

Kotizatu duzun denboraren eta familia-erantzukizunen arabera aldatzen da, epe barruan eskatu baduzu.

Kotizatutako egunak	Subsidioaren iraupena
<i>Erantzunkizun familiarrekin:</i>	
90 y 119 egun bitartean	
120 y 149 egun bitartean	
150 y 179 egun bitartean	
180 egun edo gehiago	
	3 hilabete
	4 hilabete
	5 hilabete
	21 hilabete
<i>Erantzunkizun familiarrik gabe:</i>	
180 egun edo gehiago	6 hilabete

\* Aldizkako langile finkoen kasuan iraupena eskaera egin aurreko urtean kotizatutako hilabeteek arabera.

## 2.3. 55 urtetik gorakoentzat

---

### Bete behar dituzun beste baldintza batzuk

- 55 urte edo gehiago beteta izatea langabezia-prestazioa edo -laguntza agortzen zaizun egunean, edo adin hori beteta izatea beste laguntzetako

jasotzeko baldintzak betetzen diren unean, edo horiek jasotzen dituzun bitartean betetzea.

- Gizarte Segurantzaren sisteman erretiro pentsioa jasotzeko baldintza guztiak betetzea, adina salbu.
- Lan-bizitzan zehar gutxienez 6 urtez langabeziagatik kotizatu izana.
- Aldizkako langile finkoa ez izatea, eta aldi baterako nekazaritzako langileen kotizaziopeko prestazio bat agortuta ez izatea.

Nahiz eta eskatzaileak LGSren %75 baino gehiagoko errentarik ez izan, errentarik ez izatearen baldintza bete dela ulertuko da soilik familiako kide guztien (ezkontide eta/edo 26 urte baino gutxiagoko seme-alabak edo adineko minusbaliatuak edo hartutako adingabeak) diru-sarrerak, eta hala badagokio, eskatzailearena ere barne, batu eta kideen kopuruaz zatitzean LGSren %75 ez badu gainditzen, aparteko bi ordainsarien zati proportzionala kontuan hartu gabe.

### **Eskatzeko epea**

55 urte betetzen dituzun unetik aurrera, edozein motatako laguntza jasotzeko kasuetako batean egotea, edo laguntzaren bat jasotzen egotea.

### **Laguntza kobra dezakezun aldia**

Erretiroaren kontribuzio-mailako pentsioa jasotzeko adina bete arte, edozein modalitatetan. Laguntza jasotzen jarraitzeko, zure, eta, hala badagokizu, familia-unitatearen diru-sarreraren aitorpena aurkeztu beharko duzu.

### **Informazio gehiago**

SEPEk erretiroari dagokion Gizarte Segurantzako kotizazio-kuotak ordainduko ditu. Kotizazio-oinarria une bakoitzean indarrean dagoen gutxieneko mugaren %100 izango da. Gizarte Segurantzarekin Hitzarmen Berezia sina dezakezu erretirorako kotizazioa osatzeko.

*Zer esan nahi du senitartekoen ardurak izatea?*

Ezkontidea edo seme-alabaren bat ardurapean izatea, berez, edo 26 urtetik beherako edo hortik gorako ezgaitua, edo hartutako adingabea, hilean 486,45 eurotik gorako diru-sarrerarik ez izatea, eta diru-sarrera guztien batura zati familia-unitatea osatzen duen kide kopurua kopuru hori baino handiagoa ez izatea.

*Zein dira kontuan hartzen diren errentak?*

Zuk eta zure familia-unitateko kideek lortzen dituzten diru-sarrerak, edozein dela haien jatorria, kontratu amaierarengatik legezko kalte-ordainaren zenbatekoa eta ardurapeko seme-alabak izateagatik Gizarte Segurantzak ematen dituen laguntzak alde batera utzita.

Diru-sarrerak ekartzen ez dituen ondarearen balioaren %3,5, zure ohiko etxebizitza izan ezik.

Errentei ez zaizkie kentzen zuk edo zure familia-unitateko kideek izan ditzaketen errentak.

Bestalde, badira beste subsidio batzuk, esaterako itzulitako langile emigranteentzakoak, espexetik ateratakoentzakoak edota baliaezintasun kasuen berrikuspenekoa.

### 3. LANERATZEKO ERRENTA AKTIBOA (LEA)

#### Kontzeptua

Programa hau SEPEk Autonomia Erkidego eta Enplegu-Zerbitzu Publikoen lankidetzarekin kudeatzen du. Bere helburua zailtasun ekonomiko bereziak eta lana aurkitzeko zailtasunak dituzten langabeentzat lan merkatuan sartzeko aukera areagotzeko lagungarri izatea da. Beraren bidez hileko errenta bat ordaintzen da eta, kasu jakin batzutan, beste laguntza batzuk eskaintzen dira.

#### Baldintzak

- Prestazioa jasotzen duen aldi osoan zehar langabezian egotea eta enplegu eskatzaile moduan izena emanda egotea eta jarduera konpromisoa sinatzea.
- 65 urte baino gutxiago izatea.
- Kontribuzio-mailako prestazioa zein langabeziagatiko sorospena jasotzeko eskubiderik ez izatea, ezta nekazal errentarako ere.
- Hilerio Lanbide arteko Gutxieneko Soldataren (LGS) %75 baino handiagokoak diren berezko diru-sarrerarik ez izatea, aparteko bi ordainsarien zati proportzionala kenduta.
- Zure familia-unitateko kide guztien artean hilean jasotakoaren batura (zu zeu, zure ezkontidea, 26 urtetik beherako seme-alabak, minusbaliotasuna duten adinduek edo hartutako adin txikikoak) kide kopuruarengatik zatituta lortzen denak LGSren %75 ez gainditzea, aparteko bi ordainsarien zati proportzionala kenduta.
- Laneratzeko Errenta Aktiboko Programen onuradun ez izatea eskaera aurreko 365 egun naturaletan, une horretan, pertsona ezindu, genero-indarkeriaren biktima edo etxeke indarkeriaren biktima izaera egiaztatzen denean izan ezik.
- Aurreko hiru Laneratzeko Errenta Aktiboko Programen onuradun ez izatea.

#### Bete beharreko beste baldintza batzuk

1. Epe luzeko langabeak
  - 45 urte edo hortik gora izatea.

## 2. Ezgaituak

- %33ko edo hortik gorako minusbalioetasuna aitortuta edo ezintasunagatik pentsioduna izatea.

### **Aurreko bi kolektiboentzako baldintza komunak**

- Aurrez langabezia kotizaziopeko prestazio edota subsidio bat agortu izana uneren batean, zigorragatik salbu, eta beste bat edota nekazaritzako errentarik jasotzeko eskubiderik ez izatea.
- Etenik gabe enplegu-eskatzaile gisa 12 hilabetez edo hortik gora izen emanda egotea.
- Eskaria egin den unean gutxienez hiru ekintza burutu direla enplegu-bilaketa aktiboan (EBA).

### Itzuli diren **emigranteak**

- 45 urte edo hortik gora izatea.
- Espainiatik azkenekoz irtenda gero gutxienez 6 hilabetez atzerrian lan egin izana eta eskaria egin baino lehenagoko 12 hilabeteetan itzuli izana.

### **Etxeko indarkeriaren biktimak**

Genero- edo etxe-indarkeriaren biktima egoera egiaztatu izana, babes-agindu edota Ministerio Fiskalaren txosten bidez, edo dagokionean, Administrazio eskudunaren gizarte-zerbitzuen edota harrera zentroaren ziurtagiri bidez, ebazpen judiziala medio.

### **Zein errenta hartzen da kontutan?**

Errenta gordintzat hartuko dira onuradunak eta bere familia-unitateko kideek dituzten diru-sarrera gordin guztiak (bere ezkontideak eta 26 urtetik beherako bere seme-alabek, zein heldu desgaituek edota etxean hartutako adin txikikoek), edozein dela ere beren jatorria, kontratu amaierako legezko kalteordainaren zenbatekoa eta Gizarte-Segurantzak seme-alabak izateagatik ematen dituen zenbatekoak salbu.

Diru-sarrerarik ematen ez duen ondarearen balioaren %3,5, ohiko etxebizitza salbu.

Ez dira kentzen familia-unitatean izan daitezkeen gastuak.

Genero- edo etxe-indarkeriaren biktima izanez gero erasotzailearen errentak ez dira kontutan hartzen.

### **Non egin behar da eskaria?**

<https://sede.sepe.gob.es> web-orriaren bidez, prestazioen bulegoan (SEPEren egoitza elektronikoan ordua hartuz edo 901 01 02 10 telefonora deituz), erregistro publikoko edozein bulegotan edo administrazio-postaren bidez bidaliz.

### **Laguntza kobra daitekeen aldia**

Gehienez 11 hilabetez; eskaria egin eta hurrengo egunetik aurrera hasten da jasotzen.

## Zenbatekoa

Hileko 426,00 euro; zenbateko hau eskatzaileak adierazitako finantza-erakundearen kontuan sartuko da, bere titular denean, SEPEk eskudirutan ordaintzea baimentzen dituen salbuespeneko kasuetan izan ezik.

## Beste laguntza batzuk

- Genero- edo etxe-indarkeriaren biktima bazara 1.278 euroko laguntza bat eska dezakezu, arrazoi hori medio bizilekuz aldatzera behartuta bazaude.
- Autonomo gisa lanean hasi edota besteren kontura lanaldi osoko enplegua lortuz gero, LEAren ordainketa eten egiten da; honen zenbatekoaren %25 adinako laguntza jasotzeko eskubidea duzu, gehienera jota 180 egunez; honek ez du jasotzeko dagoen LEAren iraupena murrizten.
- Lanaldi partzialeko enplegua lortuz gero, lan egindako denboraren zati proportzionala kenduko da, eta bateragarritasuna mantentzen den bitartean jasotzeko dagoen epealdia proportzio berean luzatuko da.

Besteren konturako 6 hilabetez beherako lan bat amaituz gero SEPE ofizioz berriro hasiko da ordaintzen, betiere enplegu-eskatzaile gisa inskribatuta bazaude.

6 hilabetez beherako epe baterako atzerrira joaten bazara, lan bila edo lanera, trebatze profesionalerako edo nazioarteko lankidetzara egiteko, LEAren kobrantza eten egiten da; itzulitakoan berriz jasotzen hastea eska daiteke.

## 4. ENPLEGURAKO AKTIBATZEKO PROGRAMA

### Baldintzak

Programaren onuradunak izan daitezke bertan sartzeko eskaria egiten duten egunean honako **baldintzak** betetzen dituzten epe luzeko langabeak:

- Gutxienik sei hilabete igaro izana honako laguntza edo prestazioren bat agortu zenetik: Laneratzeko Errenta Aktiboa (LEA), hau jasotzeko eskubidea hirugarren aldiz amaitzean; Babes eta Laneratzeko aldi baterako Programa (PRODI), edota Langabezia-Babesa Agortzen duten Pertsonen Birkualifikaziorako Programa (PREPARA). Agortu izana ez da aintzat hartuko zigor baten ondorio edota eskubidea onuradunari lepora dakiokkeen arrazoi bategatik galdu bada.
- 2014ko abenduaren 1ean dagokion Enplegu-Zerbitzu Publikoan enplegu-eskatzaile gisa inskribatuta egotea. Baldintza hau betetzat joko da langilea, egun horretan izen emanda ez egonda ere, besteren konturako lan bat egiten ari delako inskripzioa etenda duenean, betiere kontratua 90 egunetik beherakoa izan bada.

- Enplegu-eskatzaille gisa 360 egunez inskribatuta egon izana programan sartzeko eskaria egiten den unearen aurreko 18 hilabeteetan.
- Kotizaziopeko edo sorospeneko langabezia-babesa edo laneratzeko errenta aktiboa jasotzeko eskubiderik ez izatea.
- Besteren konturako lan bat borondatez kanpo amaitu izana, lehen puntuan aipatzen diren azken eskubidea agortu aurretik. Gainera, eskubide hori agortu eta gero lan egin balitz, egindako azken lanean borondatez kanpo amaitu izana.
- Hileko zenbatekoan lanbidearteko gutxieneko soldataren %75etik gorako diru-sarrerak ez izatea, aparteko bi pagaren zati proportzionala kenduta (486,45 euro), eta senideekiko ardurak egiaztatzea.

Programan sartzeko ez da langabetzat hartuko eskaria egiten den datan besteren konturako lanean lanaldi partzialean ari dena.

Programan sartu eta jarraitzeko, langabeek honako betebeharrak izango dituzte:

- Eskaria egiterakoan aktibitate konpromiso bat sinatu, zeinaren arabera laneratzeko ekintzak egingo dituzten.
- Eskaria egiten denetik hilabete epean SEPEan hiru enplegu-bilaketa aktibo egin izana egiaztatu.
- Programan hasi aurretik Enplegu-Zerbitzu Publikoek emandako banako enplegu-ibilbide pertsonalizatuan aurreikusten diren enpleguratzeko aukera hobetzeko eta enplegu-bilaketa aktiboko ekintzetan parte hartu.

### **Iraupena**

Laguntza ekonomikoak gehienez sei hilabete iraungo du, baina programan aurreikusitako enpleguratzeko ekintzak epe hori amaituta ere egiteko aukera izango da.

### **Zenbatekoa**

Laguntzaren zenbatekoa unean-uneko eragin anitzeko errenta-adierazle publikoaren (IPREM) %80 adina izango da, hots, egun 426 euro.

Eskaera egiteko epea

2015/01/15 etik, 2016/04/15era.

### **Programaren kudeaketa**

- Estatuko enplegu-zerbitzu publikoak kudeatuko du aktibatze programarekin batera doan laguntza ekonomikoaren ordaina.
- Autonomia-erkidegoetako enplegu-zerbitzu publikoek erabakiko dituzte enplegurako banako ibilbide pertsonalizatua eta enpleguratzeko aukera hobetzeko ekintzak.

### **Programarekin batera doan laguntza ekonomikoaren bateragarritasuna**

Behin programan onartuta, laguntza lanaldi oso zein partzialeko besteren konturako lanarekin bateragarria izango da, gehienez bost hilabetez.

Epe horretan enpresarioak laguntza ekonomikoaren zenbatekoa langileari legez edo hitzarmenaren arabera kobratzea dagokion soldatetik kenduko du. Kontratua lanaldi partzialekoa bada, soldatetik kendu beharreko laguntza ekonomikoaren zenbatekoa lan egindako denbora efektiboari proportzioan dagokiona izango da.

Langileak dagokion enplegu-zerbitzu publikoak izendatu dion tutoreari jakinaraziko dizkio izan ditzakeen kontratazioak, lanarekin bateragarri ote diren erabakitzeko.

Laguntza ekonomikoa jaso izana egiaztatzeko agiri gisa enpresarioari Seperen ebazpena eman diezaioke, non eskubidea aitortzen zaion\*.

\* Eusko Jaurlaritzak errekurtsua aurkeztu zuen programaren aurrean, konpententzi urraketa egon daitekeela ulertuta. Dokumentu hau argitaratu orduko errekurtsua oraindik erabaki gabe zegoen.

# 2

## EAE-KO GIZARTE-PRESTAZIO PUBLIKOAK

- 26 1. DIRU-SARRERAK BERMATZEKO ERRENTA
- 28 2. LANEKO SARREREN ERRENTA  
OSAGARRIA
- 29 3. PENTSIOEN OSAGARRIA
- 30 4. ETXEBIZITZARAKO PRESTAZIO  
OSAGARRIA
- 31 5. GIZARTE LARRIALDIETARAKO  
LAGUNTZAK



## 1. DIRU-SARRERAK BERMATZEKO ERRENTA

### Zer da Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta?

Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta (DBE) eskubide subjektiboko aldizkako prestazio ekonomiko bat da, bizikidetzaren unitate bateko pertsoneri zuzendua, hauek oinarritzko beharrak edota laneratze- zein gizarteratze-prozesuen ondorioz eragindako gastuetarako diru-sarrera nahikorik ez dutenean.

Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta bi motatakoa izan daiteke:

1. Gizarteratzeko eta Babes Sozialerako Oinarritzko Errenta, lan-errentetatik datozen diru-sarrerarik ez duten pertsonentzat, beren hileko baliabide konputagarriak kasuan kasu dagokion dagokion Gizarteratzeko eta Babes Sozialerako Oinarritzko Errentaren zenbatekora iristen ez direnean.
2. Lan-sarreraren Errenta Osagarria; honen xedea da bizikidetzaren unitateen baliabide maila osatzea, laneko diru-sarrerak izanagatik ere beren hileko baliabide konputagarriak kasuan kasu dagokion dagokion Gizarteratzeko eta Babes Sozialerako Oinarritzko Errentaren zenbatekora iristen ez direnean.

### Eskakizunak

- Bizikidetzaren unitate (BU) bat urtebete lehenago eratu izana, salbuespenetan izan ezik.
- Aurreko 3 urteetan etenik gabe EAEn erroldatuta egotea eta bertan bizileku efektiboa izatea. Baldintza hau bete ezean, eskaria egiten den unea baino gutxienez urtebete lehenago erroldatu izana onartuko da, 5 urteko lan-bizitza ordaindua egiaztatze aukera badago. Salbuetsi egingo dira pentsio publiko bat jasotzen dutenak edota etxean tratu txarrak jaso dituztenak; hauek urtebete erroldatuta egotea aski izango da. Aurreko baldintzarik bete ezean, azken hamar urteetan bost urtez jarraian erroldatuta egotea beharrezkoa izango da.
- Bizitzeko oinarritzko gastuetarako baliabide nahikorik ez izatea.
- 23 urtetik gora izatea. Arau honek ere baditu salbuespenak.
- Zerbitzu erresidentzial sozial, sanitario edo soziosanitarioko erabiltzaile iraunkor ez izatea.
- Espetxeratuta ez egotea.
- Lan-kontratuz egiaztatutako laneko diru-sarrerak izanez gero, lanaldi murriztua edo antzeko egoeraren batean ez egotea, salbuespenetarako egoeretan izan ezik.
- Aurrez egoki dakiokkeen beste edozein eskubide edo prestazio ekonomiko gauzatzea.
- Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta ematean titularrarekin Laneratze Aktiborako Hitzarmen bat egingo da, onuradunaren eta bere bizikidetzaren unitateko gainerako kideen gizarteratze edo laneratzea errazteko. Bere edukiak titularraren eta Lanbide- Euskal Enplegu Zerbitzuaren artean erabakiko dira, dagokionean udal Zerbitzu Sozialen lankidetzaz. Lanbideren ardura da DBEren onuradunek laneratzen lagungarri izan daitezkeen zerbitzu eta baliabideak ematea.

*Eskakizunak*

- Jakinarazi egin behar da subentzioak, laguntzak, diru-sarrerak edo helburu bererako beste baliabide batzuk eskatu edota, hala denean, jaso izana, edozein administrazio edo erakunderengandik (publiko zein pribatua dela ere).
- Eskatzaileari ez dio eragin behar oraindik tramitean den dirua itzultzeko edo zigortzeko prozedurarik, jite bereko EAeko Administrazio Orokorreko eta beronen erakunde autonomoek emandako laguntza edota diru-laguntzei dagokienean.
- Pertsona edo erakunde eskatzaileak ez du laguntza edo subentzio publikoak jasotzea galarazten dion zigor administratibo edo penalik jaso izan behar, ezta horretarako ezgaitzen duen debeku legalen baten menpe egon behar ere; bereziki aipatzen dira sexu-diskriminazioagatik gertatu direnak, 4/2005 otsailaren 18ko Emakume eta Gizonezkoen berdintasunerako legearen 6. Azken xedapenaren baitan.

**Prestazio ekonomikoa**

DBE familia bakoitzaren diru-sarreraren osagarria da. Prestazioaren zenbatekoa bere hileko diru-sarreraren arabera izango da; hauek taulan zehazten diren gehieneko zenbatekotik kenduko dira, bizikidetzaren unitatea osatzen duten pertsona kopuruaren arabera.

Diru-sarrera bat ere ez dutenean, bizikidetzaren unitateko kide kopuruaren arabera ezarritako gehieneko zenbatekoa aitortuko da.

Diru-sarreraren bat dutenean (lanekoa, pentsioa, errenta, alokairua, kalteordainak, etab.), zenbatekoa kalkulatu da diru-sarrera horiek guztiak kenduz bizikidetzaren unitatea osatzen duten pertsona kopuruaren arabera jaso daitekeen gehieneko zenbatekotik.

***DBE gehieneko hileko zenbatekoak 2015erako***

<i>BU Pertsona kopurua</i>	<i>Orokorra</i> Gehieneko euro/Hilab.	<i>Pentsiodunak</i> Gehieneko euro/Hilab.
1	619,28 euro	703,73 euro
2	795,22 euro	879,66 euro
3 edo gehiago	879,66 euro	950,04 euro

Guraso bakarreko bizikidetzaren unitateen kasuan (bere ardurapeko adin txikiko seme-alaba bat edo gehiago duten aita edo amak osatua), prestazioa hileko 45,04 euroekin osatuko da.

**Araudia**

*Diru-sarrerak Bermatzeko eta Gizarteratzeko abenduaren 23ko 18/2008 Legea.*

*147/2010 Dekretua maiatzaren 25ekoa, Diru-sarrerak Bermatzeko Errentari buruzkoa.*

*2/2010 DEKRETUA urtarrilaren 12koa, etxebizitzako gastuetarako prestazio osagarriari buruzkoa.*

*2001eko otsailaren 14ko Justizia, Lan eta Gizarte-Segurantza Sailburuaren Agindua, Oinarrizko Errentaren titularrak eta Gizarte-Larrialdietarako Laguntzaren onuradunak lanean hasteko pizgarriak ezartzeko dena.*

**2. LANEKO SARREREN ERRENTA OSAGARRIA**

Eskubide hau familia-unitateei aitortzen zaie hileko 985 eurotik gorako soldata ez duen enplegu bakarra dutenean. Izatezko bikoteen, ezkontideen edota seme-alabak ardurapean dituzten pertsonen kasuan zenbatekoa hileko 1.120 eurokoa da. Hiru kideko familietan osatu beharreko zenbatekoa 1.215 eurokoa da. Betiere, aparteko ordainsariak hainbanatuta. Aipatutako zenbatekoa baino soldata txikiagoa duten familiei osatu egingo zaie, familia-unitateko kide kopuruaren arabera.

- 990 euro kide bakarra denean.
- 1.126 euro bi kideko familientzat.
- 1.222 euro hiru kide edo gehiago duten familientzat.

**Baldintzak**

- Unitate ekonomiko bat urtebete lehenagotik osatu izana, hots, familiaren bizilekutik kanpo urtebetetik gora errolatuta egotea.
- EAEko edozein udaletan gutxienez hiru urtez errolatuta egotea, edota EAEn errolatuta egon eta Gizarte-Segurantzian 5 urtez kotizazu izana. EAetik alde egin duten familien kasuan, azken 10 urteetan 5 urtez jarraian errolatuta egon izana edota izatezko bikotea gutxienez 6 hilabete lehenago formalizatu izana.
- 23 urtetik gora izatea. Adin horretatik behera daudenak onuradun izan daitezke beren kargu seme-alabarik badute, umezurtz badira edo gutxienez 6 hilabetez ezkondata badaramate.
- Senideen etxean bizitzen jarraitzen duten senar-emazte, izatezko bikote edota seme-alabaren bat beren ardurapean duten emakume edo gizonezkoak, edota dibortzio baten ondorioz banandu eta beranduenera hiru hilabete igarota familiaren bizilekura itzultitakoak.
- Langile autonomoei beren diru-sarrerak egiaztatzen dituen adierazpena eskatuko zaie.

- Jasoko den zenbatekoa erabakitzeko aintzat hartuko da elikagai-pentsio gisa jasotzen den dirua.
- Etxebizitza bakoitzeko bi prestazio emango dira gehienez.

### 3. PENSIOEN OSAGARRIA

#### Onuradunak

- Egun DBEarekin pentsioa osatzen duten pentsiodunak.
- Orain arte DBEarekin pentsioa osatzen ez zuten pentsiodunak eta prestazio hau jaso ahal izango dutenak beren pentsioa Lanbidearteko Gutxieneko Soldataren (LGS) azpitik dagoelako.
- Pentsioa Oinarrizko Errentarekin osatu ahal izango duten pentsiodunak, Bizikidetzaren Unitate kontzeptua aldatzean. Kotizaziopeko zein bestelako zahartzaro, baliaezintasun edo alarguntasun pentsiorik txikienak kobratzen dituzten pertsonengan izango du eragina, baita hauen ezkontideen eta ekonomikoki haien menpeko direnengan.

LGS baino errenta txikiagoa duten bizikidetzaren unitate guztiok, baldintza hauek betetzen badituzte:

- EAEn erroldatuta egotea eta urtebetez bizi izana.
- Behar egoera; kasu honetan, LGS baino errenta handiagorik ez izatea.
- 23 urtetik gora izatea.
- Ez izatea urtean legokioekeen Oinarrizko Errenta lau bider baino handiagoa den ondarerik, ohiko etxebizitza salbu.

#### Zenbatekoa

12 ordaintan emandako laguntza bermatuko da. LGSaren %100eraino osatuko da.

#### Diru-sarreraren muga

	<i>14 ordainsari</i>	<i>12 ordainsari</i>
Kide 1	603 euro	703,73 euro
2 kide	755 euro	879,66 euro
3 kide edo gehiago	815 euro	950,04 euro

## 4. ETXEBIZITZARAKO PRESTAZIO OSAGARRIA

Etxebizitzako Gastuetarako Prestazio Osagarria (EPO) aldizkako prestazio ekonomiko bat da, Diru-sarrerak Bermatzeko Errentaren (DBE) osagarri gisa sortua, ohiko etxebizitza edo bizilekuaren alokairuak eragindako gastuak ordaintzeko, edozein motatakoa dela ere: errentamendua, azpierrementamendua, baterako alokairua, ostatu hartzea eta gelen alokairua.

### Eskakizunak

- Diru-sarrerak Bermatzeko Errentaren titular izatea, modalitatereen batean.
- Titularrak ohiko etxebizitza edo bizitokiko aldizkako gastuei erantzun behar izatea.
- Etxebizitzako gastuetarako prestazioaren helburu bera duen edozein dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edota beste baliabideren eskaeraren eta, dagokionean, jaso izanaren berri ematea, edozein Administrazio edo erakunde tartean dagoela (publiko zein pribatua dela ere).
- Eskatzaileari ez dio eragin behar oraindik tramitean den dirua itzultzeko edo zigortzeko prozedurarik, jite bereko EAEko Administrazio Orokorreko eta beronen erakunde autonomoek emandako laguntza edota diru-laguntzei dagokienez.
- Pertsona edo erakunde eskatzaileak ez du laguntza edo subentzio publikoak jasotzea galarazten dion zigor administratibo edo penalik jaso izan behar, ezta horretarako ezgaitzen duen debeku legalen baten menpe egon behar; bereziki aipatzen dira sexu-diskriminazioagatik gertatu direnak, 4/2005 otsailaren 18ko Emakume eta Gizonezkoen berdintasunerako legearen 6. Azken xedapenaren baitan.

### Prestazio ekonomikoa

Etxebizitzako Gastuetarako Prestazio Osagarriaren gehieneko zenbatekoa hilean 250 euro izango da, eta ez dago kopuru hori gehitzeko inolako aukerarik, edozein modalitatetan, hots, errentamendua, azpierrementamendua, baterako alokairua, ostatu hartzea eta gelen alokairua.

### Araudia

*Diru-sarrerak Bermatzeko eta Gizarteratzeko abenduaren 23ko 18/2008 Legea.*

*Diru-sarrerak Bermatzeko eta Gizarteratzeko Legea aldatzeko 4/2011 Legea, azaroaren 24koa.*

*2/2010 DEKRETUA urtarrilaren 12koa, etxebizitzako gastuetarako prestazio osagarriari buruzkoa.*

*2001eko otsailaren 14ko Agindua, lanean hasteko pizgarriak ezartzeko dena.*

## 5. GIZARTE LARRIALDIETARAKO LAGUNTZAK

Aldizkakoak ez diren prestazio ekonomikoak dira, dirulaguntza modukoak eta finalistak, ohiko edo ohiz kanpoko gastu zehatzak osatzeko, gizarte bazterketa egoerak saihestu, arindu edota ekiditeko beharrezkoak.

### Honako gastuak estal daitezke

- Sistema publikoek estaltzen ez dituzten oinarritzko beharrianetarako gastuak (janztekoa, hezkuntza, prestakuntza eta osasun-arreta).
- Ohiko etxebizitza edo bizitokia erabili edota mantentzeko gastuak.
- Etxebizitza moldatu, konpondu edota oinarritzko instalazioak egiteko gastuak.
- Aurrez hartutako zorren gastuak.
- Alokairuak edota etxebizitza edo bizitokia eskuratzeko maileguen interesek edo amortizazioak eragindako gastuak.
- Altzarien eta "lerro zuriko" etxetresnen gastuak.

### Eskakizunak

- Eskabidea egiterakoan EAEn erroldatuta egotea, gutxienez 6 hilabete lehenagotik.
- Bizikidetzaren unitate independente bat eratu izana eskabide data baino urtebete lehenago, kasu jakin batzutan salbu.
- Adin nagusikoa izatea, kasu jakin batzutan salbu.
- Baliabide nahikorik ez izatea.
- Etxebizitzako Gastuetarako Prestazio Osagarriaren onuradun ez izatea.

### Zenbatekoa

HILEKO DIRU-SARREREN MUGA. 14 ORDAINSARI:

990 euro kide 1 izatekotan (1.155 12 ordainsaritan).

1.157 euro 2 kide izatekotan (1.350 12 ordainsaritan).

1.281 euro 3 kide edo gehiago izatekotan (1.495 12 ordainsaritan)

PENTSIODUNENTZAKO HILEKO DIRU-SARREREN MUGA. 14 ORDAINSARI:

973 euro kide 1 izatekotan.

1.218 euro 2 kide izatekotan.

1.314 euro 3 kide edo gehiago izatekotan.



# 3

## GIZARTE-PRESTAZIO PUBLIKOAK NAFARROAN

34 1. GIZARTERATZEKO ERRENTA



## 1. GIZARTERATZEKO ERRENTA

### Helburua

Gizarte-bazterketa egoeran dauden familia-unitateen oinarrizko beharrianak asetzea. Bazterketa egoeran dauden familia-unitateen gizarteratzea sustatzea.

### Hartzaileak

Gizarte-bazterketa egoeran dauden familia-unitateetako pertsonak.

Familia-unitatea etxebizitza berean bizi diren ezkontideek edo bikote egonkorrek eta bigarren mailara arteko ahaidetasuna duten kideek osatzen dute (gurasoak, seme-alabak, anai-arrebak, aitona-amonak eta bilobak); eta, ezkontza bidez ahaidetasunaren kasuan, lehenengo mailara artekoek (ezkontidearen gurasoak eta seme-alaben ezkontideak).

### Errenta jasotzeko eskakizunak

- a) 25 eta 65 urte bitartekoa izatea.
- b) Legez Espainiako lurraldean bizi izatea.
- c) Laguntza eskatu aurreko 24 hilabeteetan zehar, benetan eta modu jarraituan Nafarroan bizi dela egiaztatzea.
- d) Azken sei hilabeteetan, prestazioa eskuratzeko ezarritakoa baino diru-sarrera ekonomiko txikiagoa izatea.
- e) Aurrez, edozein Administrazioari eta Gizarte Segurantzari egoki dakizkiokeen edozein motatako pentsioak edo laguntzak eskatu izana.

Salbuespen gisa, onuradun izan ahalko dira, a) edo d) eskakizuna bete ez arren, aplikatzekoa den araudian deskribatzen diren egoeretan dauden familia-unitateak.

### Ezaugarriak

Gizarteratzeko Errenta indarrean dagoen legerian aurreikusitako beste edozein baliabide motaren eta prestazio sozial ekonomikoren prestazio osagarria eta subsidiarioa da.

### 2015eko zenbatekoak

- Kide 1eko unitate hartzailea: Lanbide Arteko Gutxieneko Soldataren (LGS) %100 arte.
- 2 kideko unitate hartzailea: Lanbide Arteko Gutxieneko Soldataren (LGS) %120 arte.
- 3 kideko unitate hartzailea: Lanbide Arteko Gutxieneko Soldataren (LGS) %130 arte.
- 4 kideko unitate hartzailea: Lanbide Arteko Gutxieneko Soldataren (LGS) %140 arte.

- 5 kide edo gehiagoko unitate hartzailea: Lanbide Arteko Gutxieneko Soldataren (LGS) %150 arte.

Gutxieneko kopuruak erregelamendu bitartez ezarriko dira.

Gizarteratzeko Errenta oro har 12 hileko epealdirako emango da, gehienez 36 hilabeteraino.

Salbuespen gisa, gehieneko epealdi hori gainditu ahal izango da Sailaren foru-agindua medio, Gizarteratze Balorazio Batzordearen aldeko txostena dagoenean, 16 urtez peko pertsonen zaintzak salbuespen gisa eta aldi baterako eskatzailearen eta gainerako kide helduen laneratzea eragozten badu, edota osasun egoera larriak edo aurrez ez zeudenak sortzen badira.

Gizarteratzeko Errentaren onuradunek, aparteko kasuetan izan ezik, gizarteratzeko helburuak dituzten gizartean sartzeko akordioa edo gizarte eta lan arloko akordioa ezartzeko betebeharra izango dute.

### **Aurkezpen epea**

Urte guztian irekita.

### **Derrigorrezko dokumentazioa**

- Berariazko inprimakian egindako eskabidea (Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetan emango da), behar bezala beteta eta interesdunak sinatuta.
- Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak egindako txosten soziala.
- NAN agiriaren fotokopia, erresidentzia baimena (Atzerritarren identifikazio-txartela) edo eskatzailearen eta edukitzeko obligazioa duten familia-unitateko gainerako kideen nortasuna eta legezko erresidentzia egiaztatzen duen dokumentazioa eta Familia-liburua, baldin eta Oinarrizko Gizarte Zerbitzuko familia-espeditentean jasota ez badaude.
- Laguntza eskatu aurreko hogeita lau hilabeteetan zehar, modu jarraituan, Nafarroan bizi izan dela egiaztatzen duen edo duten errolda-ziurtagiria/k.
- Etxebizitza berean bizi diren pertsona guztiak jasotzen dituen bizikidetza-ziurtagiria. Ahaidetasun eta/edo ezkontza bidezko ahaidetasun harremana zehaztea. Eskatzailea bizilekuan erroldatuta ez badago, ahaidetasun-harremana duten bizikideen zinpeko deklarazioa eskatzen da.
- Eskatzailearen eta bere Familia-unitateko kide guztien gaur egungo eta azken sei hilabeteetako (eskaera egiten den hilabetea barne) diru-sarrerak (nominak, prestazioak, pentsioak, laguntzak, ezintasun iragankorra) justifikatzen dituzten agiriak.
- Banantze edo dibortzio kasuetan, hitzarmen arauemailea edo epai judiziala eta, hala badagokio, ezarritako pentsioa ez ordaintzeagatik hasitako legezko ekintzak, baldin eta ez badaude Oinarrizko Gizarte Zerbitzuaren espeditentean jasota.
- Transferentzia bidezko ordainketarako eskabidea, banku-erakundeak behar bezala beteta.

- Eskabidea egin aurreko hamabi hilabeteetan borondatezko bajarik edo lan-eszedentziarik hartu ez izana eta lan eskaintzarik errefusatu ez izana adierazten duen zinpeko deklarazioa.

### **Tramitazioa**

Eskatzailearen helbideari dagokion oinarrizko gizarte zerbitzuan.

### **Hurrengo urratsak**

Lehen Mailako Arretako eta Gizarteratzeko Zerbitzuak, interesatuak eskakizun guztiak betetzen dituela egiaztatuko du eta errenta ematearen aldeko edo aurkako irizpena emango du.

### **Araudia**

*36/2013 Foru Legea, azaroaren 26koa, urtarrilaren 23ko 1/2012 Foru Legea aldatzen duena (NAO, 233. alea, 2013ko abenduaren 4koa).*

*120/1999 Foru Dekretua, apirilaren 19koa (NAO, 54. alea, 1999ko maiatzaren 3koa).*

*1/2012 Foru Legea, urtarrilaren 23koa (NAO, 24. alea, 2012ko otsailaren 3koa).*

*58/2012 Foru Agindua, otsailaren 9koa (NAO, 57. alea, 2012ko martxoaren 22koa).*

*193/2013 Foru Agindua, otsailaren 22koa (NAO, 51. alea, 2013ko martxoaren 14koa).*



